

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kepa Mondragon Jauregi

*Aramaio, Araba
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



Uribarri auzoko Uribarrigaineko baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama Arexola (Aixola) auzoko Peruena baserrikoa. Zortzi seme-alaba izan zituzten, Kepa hirugarrena. Seitik bederatzirterarte kaleko eskolan ikasi zuen. Gero auzoko eskola berrian jarraitu zuen, gaur Intxaurren Elkarte dagoen lekuan, Maria Anjeles maistra eibartarrarekin. Gau-eskolak ere hartu zituen. 34 urte arte baserrian egin zuen lan. Horren ondoren, Lana Kooperatibari hasi eta geroago Fagor-en jardun zuen lanean erretiroa hartu arte. Gantzaga auzoko Garratz baserriko Karmen Elorzarekin ezkondu eta bi ume izan zituzten.

Zintak

ARA-007

- **Proiektua:** Aramaioko euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriolabengoa, Divina
- **Data:** 1996-11-09
- **Iraupena:** 110 min
- **Euskarria:** VHS Standard

ARA-077

- **Proiektua:** Aramaioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-11-18
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Aita gazterik hil zen

- **Erref:** ARA-077/002
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:02:06. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Auzoko eskola gaur egun Intxaurren elkartea dagoen tokian zegoen. Han eskolatu zen Kepa. Irakasleak beti maistrak izan zituen. 20-30 bat ikasle elkartzen ziren eskolan, neska eta mutil elkarrekin. 11 urte zituela aita hil zitzaion, eta harrezkero ahal izan zuenetan bakarrik joan zen eskolara. Anaiarik gazteenak urte bat zuen orduan, ama gaixorik zegoen eta osabek asko lagunduta irten zuten aurrera. 16 urterekin hartu zuen etxearen ardura osoa.

2. Kaleko gau-eskolak

- **Erref:** ARA-077/003
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:07:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Sei urterekin hasi zen eskolan, kalean. Bederatzi zituela eraiki zuten auzoko eskola eta bertan jarraitu zuen ikasten. Aita hil eta gero kaleko gau-eskolara joaten zen. Hamabost urterekin bukatuko zituen eskolok.

3. Baserritik bizimodurik ez

- **Erref:** ARA-077/004
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:07:17. **Bukatu:** 00:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ganadu asko izan dute beti Urribarrigaiñen. Soldadutzatik etorri zenean, okeletarako behiak kendu eta esnerakoak jarri zituen. "Leche Ona" etortzen zen Bilbotik esnearen bila. Egunean ehun esne-litro batzen zituen. Ezkondu zenean ganadu batzuk kendu eta lantegian hasi zen lanean.

4. Zerrategitik Fagorrera

- **Erref:** ARA-077/005
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:09:55. **Bukatu:** 00:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Lehenengo Lana zerrategian egin zuen lan. Gero Fagorrera pasatu eta bertatik jubilatu zen.

5. Traje eta gorbatarekin lanean

- **Erref:** ARA-077/006
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:12:48. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Azken 13 urteak ate-zaintzaile jardun zuen Fagorren, Garagartzako lantegian. Burla egiten omen zioten, traje eta gorbatarekin lan egiten zuelako. Atezaintzan hartu zuen erretiroa.</p>

6. Idi tratuan

- **Erref:** ARA-077/007
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Gaztea zenean idiak aldatu beharra suertatu zitzaion. Arrasateko ferian idi berriak lortzeko egin behar izan zituenak azaltzen ditu. Idiak ordaindu gabe eraman zituen etxera.</p>

7. Idi zaharrak saltzen

- **Erref:** ARA-077/008
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Idi zaharra Oletako Felix tratanteari saldu zion. Berria kostatu zitzaiona baino 3.000 erreal gehiago lortu zituen zaharragatik.

8. Matxaka eta gari-jotze makina

- **Erref:** ARA-077/009
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:25:19

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Arrasateko hurrengo ferian idiak ordaindu eta mundu guztia pozik azaldu zen. Soroetan artoa eta garia urtero lekuz txandatuta ereiten ziren. Erremolatxa eta patata ere sartzten zituzten. Garia matxakarekin jotzen zuten. Soldadutzatik etorri eta gero, gari-jotzaile handia erosi zuten hogeitaz baserriarren artean. Garia zorrora eta lastoa ganbarara botatzen zuen gari-jotzeko makinak.</p>

9. Garia ereiteari utzi zioten

- **Erref:** ARA-077/010
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:25:19. **Bukatu:** 00:27:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Garia ereiteari utzi zionean, gari-jotzekoaren bere parte inuzpeko bati saldu zion. 1960. urte inguruan utziko zion garia ereiteari. Poliki-poliki baserriar guztiak garia ereiteari uzten joan ziren. Gari-jotzeko makina txatarretara eraman zuten.</p>

10. Garia ebakitzeko makina

- **Erref:** ARA-077/011
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:27:27. **Bukatu:** 00:29:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garia ebakitzeko makinarik ez zuen, baina alokatutakoa ekartzen zuten etxeko lanetarako. 43 urte izango zituen lehenengo traktorea erosi zuenean. Oraintxe arte iraun du traktore hark.

11. Morroi eta neskameak etxean

- **Erref:** ARA-077/013
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:32:05. **Bukatu:** 00:35:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean kaletik jendea etortzen zen, tripa betetze alde baserrian lana egitera. Umea zenean, morroi eta neskameak ezagutu zituen etxean. Haiek ere tripa-truke eta jantzien alde egiten zuten lan. Gabonetan zerbait ematen zieten, etxera eraman ahal zezaten.

12. Matxaka motorduna

- **Erref:** ARA-077/014
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:35:09. **Bukatu:** 00:39:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Aita zena oso aurrerakoia omen zen. Garia jotzeko matxakarentzako, gasolinarekin zebilen motor alemana, soka batekin abian jartzen zena, ekarri zuen.

13. Aitak sagardoa eta txakolina egiten zituen

- **Erref:** ARA-077/016
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:40:28. **Bukatu:** 00:42:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Aitak fruta-arbola asko zituen landatuta. Sagardoa eta txakolina egiten zuen. Bilbotik karroza handi batekin etortzen ziren sagardoa erostera. Kepak uste du garai haietarako bere aita aurrerakoia izan zela. 1945. urtean hil zen. Beste baserri batzuetan behorrek edo trilluarekin (trailua) garia jotzen zenean, aitak motordun matxakarekin egiten zuen lan bera.</p>

14. Argindarra auzoko errotatik

- **Erref:** ARA-077/017
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:42:59. **Bukatu:** 00:45:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Auzoan bazuten errota. Bertan sortutako argindarrarekin argitzen zuten etxea berak akordua duenetik. Urik ez zegoenean, argirik ere ez zuten izaten eta argizariz eginiko txirritolarekin argitzen ziren. Urik gabeko igande batean, auzoko abadea haserre omen zen elizan argirik ez zegoelako. Mezatan bertan auzotarren batek erantzun omen zion. Don Vicente Irazuegui zen abade hori, eta herriko alkateak baino aginte handiagoa omen zuen.</p>

15. Abadearen "esker ona"

- **Erref:** ARA-077/018
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:49:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Don Vicente abadea Francoren aldekoa zen; Keparen familia, berriz, abertzalea. Gerra aurretik maisu jardundako osaba batek, gerraren ondorioz, zazpi urte eman zituen kartzelan. Beste osaba batek hiru urte eman zituen. Aitak mehatxuak eta etxean lapurretak jasan zituen; orduan galdu omen zuen osasuna. Milizianoak Don Vicente abadea hiltzera etorri ziren; baina, Keparen osabak eskatuta, ez zuten hil. Geroago, Don Vicente abadeak osabaren heriotza-zigorra sinatu omen zuen.</p>

Transkripzioa

-Eta, klaro, bera zan frankistie, eta guriek zien nazionalistak orduen, ez dakitzu?

-Bai.

-Gerra zerien, eta ezin, bata bestiaz ezin, ezin tropezau. Ezin tropezau orduen...

-Baiñe mezetara gaiñera fan in biher!

- A! Biherko! Eta ezin tropezau, eta, neure osaba bat zan maisue, maisue edo andereñue edo zera, gerra aurretik. Eta gero gerran ibili zan Ajuriagerra eta hor konpaiñian ibili zan. Eta gero zazpi urte in zittuen kartzelan, nire osaba batek. Eta beste osaba batek in zittuen hiru urte. Eta gure aitte orduen hondatu zan.

-Baiñe zure aitte fan zan gerrara?

-Ee ... ibili zan, baiñe ez. Ibili zan zerien, baiñe ez. Eta osabiek ibili zien, ez dakitzu?

-Bai.

-Eta gero gure aitte amenazau, eta, entzunde dauket nik, txahala hartu eta, kortatik, eta, hartu eta eruen, eta agur! Eta holako kontuek entzunde dauket.

-Gerrie pasau ta gero?

-Gerra ostetxue, hor, gerra akabeta, hor.

-Nazionalistie zalako?

-Bai. Eta gero gure aitte hondatu zan, eta gero ez auen onik euki.

-Zuk zeuk senideik galdu zeen, galdu gerran?

-Ez, gerran galdutakoik ez. Oin e, kartzelan egonda zazpi urte nire osabie, bai; eta bestie beste hiru urte eta, bai. Baiñe gure senideik ez zan galdu gerran. Eta gero, ba, haundixaue: etorri zien orduen komunistak,

komunistak edo ez dakit zelan esaten zotsien ...

-Milizianuek.

-Bai, milizianuek. Eta, klaro, ez auen orduen kamiñoik, eta hor senda bat auen, eta sendatik honutze, ba, abade hau hil in biher auiela-eta. Eta gure osabiek...

-Don Bizente ya orduen, gerra denboratik auen...

-Gerran... hor gerra zerien...

-Euen ya abade?

-Bai, bai, gerra aurretik be bai, e! Baiñe hor gerran zelan sartute auen Francon zerien, ba, milizianuok edo zerok, ba, beorren bila. Eta gure osabiek, hemendik edo hortik, ba, zelan orduen poderen bat, nundibaittetik baeuken, ba, enterau zan zelan etozen abade hau hiltten. Eta urten eutsen -nik entzunde e?- bidera, eta esan ei zotsen: "Holakoik ez eizue ein. Txar itten badau, on itten badau, itxiozue bakien". Eta gero, berak gure osabiei pena de muertie firmau. Hori nire osabiek kontaute, egixe bada guzurre bada.

-Holako kontuak ez dia hamen bakarrik pasau, leku askotan pasau dia. Lehenengo lagundu, batek behin lagundu eta berak zu hil.

-Baiñe ... euki zittuen "pena de muerte" bat edo bi, euki zittuen, baiñe gero, ba, nazionalen aldetik edo, ba, indderra-edo baeuken bere lagunek edo bere zerak, eta salbau zan hil barik.

16. Osabak kartzelan ezagutu zuen andregai

- **Erref:** ARA-077/019
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:49:03. **Bukatu:** 00:50:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Osaba, Cirilo Mondragon, kartzelatik irten eta gero ezkondu zen. Laudioko kartzelan ezagutu zuen bere emaztea izango zena. Bi seme-alaba izan zituzten.

17. Errepide zaharrak

- **Erref:** ARA-077/021
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:52:49. **Bukatu:** 00:56:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Baso bateko egurra saldu eta Montesa Impala moto bat erosi zuen 25 urte zituela. Bide estu batetik, baina etxeraino iristen zen motoan. Kaletik Uribarri auzorako errepidea 1950. urte inguruan egin zen. Igandetan kalera joateko ohitura zuten. Ordubete inguruko ibilaldia zen orduan. Otxandiora ere joaten ziren, oinez.</p>

18. Fraideen agindua

- **Erref:** ARA-077/022
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:56:04. **Bukatu:** 00:59:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Abuztuko San Estebanetan ospatzen dituzte auzoko jaiak. Meza, soinu-jotzailea eta bazkari berezia izaten zuten. Kaleko erromerietan dantza lotua egitea debekatuta zuten. Aste Santu inguruan, Arantzazuko fraideak etortzen ziren udaletxeko balkoitik sermoia egitera. Behin, Artetxe izeneko fraide batek, egindako bekatuengatik barkamena lortzeko plazako zoruari muin emateko agindu zien entzuleei.

19. Basoetan pinurik ez

- **Erref:** ARA-077/026
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:07:24. **Bukatu:** 01:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Fauna

Laburpena:

Arrasateko plazara astero joaten zen ama, etxeko sagar, arrautza, etab. saltzera. Hori izaten zen sarritan etxeko diru-sarrera bakarra. Garai haietan azeriak eta ez zuten hainbeste erasotzen. Aramaion gaur ikusten diren pinudi guztiak, gaztainadi, harizti eta pagadiak ziren orduan. Mendiaren beste aldetik, Otxandioraino, larrea eta iralekuak zeuden.

20. Otxandio eta Aramaio arteko muga arazoak

- **Erref:** ARA-077/027
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:09:53. **Bukatu:** 01:11:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Araba eta Bizkaia artean muga arazoak daude, Aramaio eta Otxandio arteko muga. Jabe ezagun gabeko lursailen bat omen dago bertan.

21. Ura etxean

- **Erref:** ARA-077/028
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:11:51. **Bukatu:** 01:14:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Argindarra beti ezagutu du Kepak etxean. Sukaldean ura aitak jarri zuen. Aurretik patinatik (putzua) hartzen zuten ura. Ura etxera ekartzeko egin zituzten lanak azaltzen ditu. Bi idi-pare erabili zituzten, gurdi bati lotuta, ur andela egiteko materiala garraiatzen. Horretan zebiltzala, gurdiak oin bat harrapatu zion aitari.

22. Aita petrikiloarengana eraman zuten

- **Erref:** ARA-077/029
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 01:14:36. **Bukatu:** 01:18:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Salturralde baserri inguruan izan zen istripua. Aita astoan kargatuta kaleko petrikilora eraman zuten eta Kepak zortzi urte zituela, gurdiarekin jarraitu zuen. Petrikiloa Aramaioko emakume bat zen.

23. Aramaioko medikua

- **Erref:** ARA-077/030
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:18:21. **Bukatu:** 01:19:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Medikua bazegoen Aramaion. Baserririk baserri ibiltzen zen mediku hori. Larrialdietan Gasteizko Santiago ospitalera joaten ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com